 And she did—the whole long day.

XXX

OUT of the dark, and dearth
 Of happiness on earth,
 Out of a world inured to death and pain;
 On a fair spring morn
 To me a son was born,
 And hope was born —the future lived again.

Bere eskuak, esku trebe, ezurtsu eskuak
 Zaartu ta biurrituak zeuden,
 Bañan bere borondateari iñoiz ez zioten
 Utsegin loturak, jostorrazak eta idazlumak,
 Eusteko oraindik gauza izanaz,
 Begiaren betikadak galer-arazi gabe.
 Ingelesen eramankizunak beti gogoan,
 Batez ere, gudalur epaietan bere bi semeenak.
 Noizean bein, liburu edo eskutitzekin,
 Apur batean, gogotik joaten zitzaion,
 Bañan beinere, iñor ez beinere aazu—
 Percy eta John —alaz ere banekien
 Oietako bat maiteagoa zuela,
 Percy, alperra, jokari, seme zaarrena.
 Il arte gogoratuko naiz bere aurpegia,
 Abendu egun artan, gaisotegian biok,
 Zauritu ta il-zorian zeudenen idazkiak idazten.
 Itz xoro, bakan eta maitekorrak,
 Idazten eta negar egiten.
 Bat batean, goruntz begiratuaz,
 Adiñeko erretorea, gaisotegian zear,
 Alabearra balitz bezela.
 Aldamenean geldituaz esan zion:
 «Adiskide maitia, atoz etxera. Berri lazgarriak dauzkat».
 Beldur esturarik gabe begiratu,
 Aurpegia ez zorrotz, ez estalki—
 «Nor? Percy edo John?» galde egin zun.
 «Percy». Begiak beeratuaz: «Nere eginbearra daukat emen,
 Ezin joan orain idazkiak bukatu arte. Il diranak
 Bizi diranen atzetik daude» esan zun—
 «Au da nere lana, gelditu bearra daukat.»
 Orrela egin zun— egun luze osoan.

XXX

Illuntasun eta garestia, mundu onetako zorionetik urrun,
 Oñaze ta eriotzara etsitako mundua,
 Udaberriko goiz eder batean
 Semea jaio zitzaidan,
 Itxaropena jaio, etorkizuna berriro bizirik.

To me a son was born,
 The lonely hard forlorn
 Travail was, as the Bible tells, forgot.
 How old, how commonplace
 To look upon the face
 Of your first-born, and glory in your lot.

To look upon his face
 And understand your place
 Among the unknown dead in churchyards Iying.
 To see the reason why
 You lived and why you die—
 Even to find a certain grace in lying.

To know the reason why
 Buds blow and blossoms die,
 Why beauty fades, and genius is undone,
 And how unjustified
 Is any human pride
 In all creation—save in this common one.

XXXI

MATERNITY is common, but not so
 It seemed to me. Motherless, I did not know—
 I was all unprepared to feel this glow,
 Holy as a Madonna's, and as crude
 As any animal's beatitude—
 Crude as my own black cat's, who used to bring
 Her newest litter to me every spring,
 And say, with green eyes shining in the sun:
 'Behold this miracle that I have done.'

And John came home on leave, and all was joy
 And thankfulness to me, because my boy
 Was not a baby only, but the heir—
 Heir to the Devon acres and a name
 As old as England. Somehow I became
 Almost an English woman, almost at one
 With all they ever did—all they had done.

Semea jαιο zitzaidan,
 Gogotik joandako
 Erdimin bakartia, gogor, etsitua,
 Idazti Deunak dion bezela.
 Bai betikoa, bai arrunta,
 Seme nagusiaren aurpegia ikusi
 Ta zorionez bete.

Bere aurpegiari begiratu
 Iltokiko ez ezagunen ilen artean
 Bakoitzaren lekua, orixe,
 Bizitzaren eta eriotzaren arrazoia, ta,
 Iltzeari zerbaiten zoramena aurkitu.

Pinportak zergatik loratzen, lorak il,
 Edertasuna zimeldu, ta izatea autsi,
 Bai bidegabekoa edozein
 Giza-arrotasun, sortze guztietan,
 Ain oiturazko ori ez ezik dana.

XXXI

Amatasuna, askorena bada ere, neretzat
 Ez orrelakoa. Umezurtz, ez nekien—
 Ez negon prest bizitasun ori oartzeko,
 Birjin alako saindua, era berean latza,
 Edozein aberearen zoriona bezelakoa.
 Nere katu beltzarena bezin gogorra.
 Udaberri bakoitzean bere ume-aldia ekartzen zidana,
 Eta esan, begi berde argi aiekin:
 «Begira, nolako miraria egin deten».

Baimena eman zioten, John etxeratu, bai alaitasuna,
 Neretzako esker-erakutsia, nere semea
 Ez bai zan bakarrik aurtxoa, baizik nausigaia —
 Devon'ko goldeen nausigaia ta izenez
 Ingeleterra bezin zaarra. Oraintxe bai, nere ustez
 Andre ingelesen berdintsua, ia oietakoa.
 Egin ziguten guztiekin — egin zuten guztiekin.

XXXII

‘I WANT him called John after you, or if not that I’d
rather...’
‘But the eldest son is always called Percy, dear.’
‘I don’t ask to call him Hiram, after my father—’
‘But the eldest son is always called Percy, dear.’
‘But I hate the name Percy. I like Richard or Ronald,
Or Peter like your brother, or Ian or Noel or Donald—’
‘But the eldest is always called Percy, dear.’

So the Vicar christened him Percy; and Lady Jean
Gave to the child and me the empty place
In her heart. Poor Lady, it was as if she had seen
The world destroyed—the extinction of her race,
Her country, her class, her name—and now she saw
Them live again. And I would hear her say:
‘No. I admire Americans; my daughter-in-law
Was an American’ Thus she would well repay
The debt, and I was grateful—the English made
Life hard for those who did not come to her aid.

XXXIII

‘THEY must come in in the spring.’
‘Don’t they care sixpence who’s right?’
‘What a ridiculous thing—
Saying they’re too proud to fight.’
‘Saying they’re too proud to
‘Wilson’s pro-German, I’m told.’
‘No, It’s financial.’
‘Oh, quite,
All that they care for is gold.’
‘All that they care for is gold.’
‘Seem to like writing a note.’
‘Yes, as a penman, he’s bold.’
‘No. It’s the Irish vote.’
‘Oh, it’s the Irish vote.’
‘What if the Germans some night
Sink an American boat?’
‘Darling, they’re too proud to fight.’

XXXII

«John, zu bezela izendatzea nai det, edo bestela...»
 «Bañan, ene maite, nagusia beti Percy izaten da.»
 «Ez dizut eskatzen Hiram, nere aita bezela —»
 «Bañan, ene maite, nagusia beti Percy izaten da.»
 «Izen ori, Percy, gorrotoan daukat. Naiago Richard edo Ronald,
 Edo Peter, zure anaia bezela, edo Ian edo Noel edo Donald—»
 «Bañan, ene maite, nagusia beti Percy izaten da.»

Orrela ba, erretoreak Percy bataiatu zun; eta Lady Joan'ek
 Aurra ta biok bere biotzean kokatu.
 Lady gaisoa, mundua porrokatuta
 Ikusi izan balu bezela— gizakiaren itzaltzea,
 Bere erri, kide, bere izenekoak — eta orain
 Berriro bizirik ikusi. Esan oi zun:
 «Ez, Amerikatar-zale naiz; nere erraina
 Amerikatarra zan». Zorra onela ordaintzen zun,
 Ni berriz, eskerdun — ingelesak bizitza gogortzen zuten
 Laguntza egiten ez zieteneri.

XXXIII

«Udaberrian etorri bear dute».
 «Arrazoia norena dan, aientzat zer ajola?»
 «Ori bai parregarria—
 Guda egiteko arrogiak dirala esatea.»
 «Guda egiteko arrogiak dirala esatea.»
 «Wilson doixtarren aldekoa, esan didate.»
 «Ez, diruketarien egitekoa omen da.»
 «Oi, ori uste det,
 «Urrea besterik ez zaie ajolarik.»
 «Urrea besterik ez zaie ajolarik.»
 «Oarpena idaztea laket zaiola dirudi.»
 «Bai, luma-ederreko ausartia.»
 «Ez. Irlandarren iritzipena da.»
 «Ene, Irlandarren iritzipena omen da.»
 «Eta gau batean doixtarrak itsas-ontzi
 Amerikatarra ondoratzen badute?»
 «Maitia, arrogiak dira borroka egiteko.»

XXXIV

WHAT could I do, but ache and long
 That my country, peaceful, rich, and strong,
 Should come and do battle for England's sake.
 What could I do, but long and ache.
 And my fadher's letters I hid away
 Lest some one should know the things he'd say.
 'You ask me whether we're coming in—
 We are. The English are clever as sin,
 Silently, subtly they inspire
 Most of youth with a holy fire
 To shed their blood for the British Empire.
 We'll come in—we'll fight and die
 Humbly to help them, and by and by,
 England will do us in the eye.
 They'll get colonies, gold and fame,
 And we'll get nothing at all but blame.
 Blame for not having come before,
 Blame for not having sent them more
 Money and men and war supplies,
 Blame if we venture to criticize.
 We're so damn simple—our skins so thin
 We'll get nothing whatever, but we'll come in.'

XXXV

AND at last—at last—like the dawn of a calm, fair day
 After a night of terror and storm, they came—
 My young light-hearted countrymen, tall and gay,
 Looking the world over in search of fun and fame,
 Marching through London to the beat of a boastful air,
 Seeing for the first time Picadilly and Leicester Square,
 All the bands playing: 'Over There, Over There,
 Send the word, send the word to beware—'
 And as the American flag went fluttering by
 Englishmen uncovered, and I began to cry.

XXXVI

'WE'RE here to end it, by jingo.'
 'We'll lick the Heinies okay.'
 'I can't get on to the lingo.'
 'Dumb—they don't get what we say.'

XXXIV

Zer nezakean, miñ-izan eta irrikatu baizik
 Nere aberria, pakedun, aberats eta indartsua,
 Ingeleterra'ra etorri ta bere alde borroka egin zezan.
 Zer nezakean, miñ-izan eta irrikatu baizik.
 Aitaren eskutitzak gorde bear,
 Iñork jakin ez zezan zer esaten zun.
 «Galde egiten didazu ia bagoazen —
 Bagoaz. Ingelesak pekatua bezin azkarrak dira,
 Ixillik, meaxki, ia gaztedi osoari
 Sugar bizia piztutzen dio
 Britaniar Aginterriaren alde beren odola emateko.
 Joango gera —borroka egin eta iltzera.
 Apalki emango laguntza ta bi ta bi lau diran bezela
 Ingeletarrak ziria sartuko digu.
 Koloni, urre ta ospea lortuko
 Ta gureztat, gaitzestea besterik ez.
 Marmar leenago etorri ez giñalako,
 Diru, gizon eta gudari-orni geiago
 Bidali ez genitulako, esamesa.
 Aztertzera ausartzen bagera ere bai —
 Ergel utsak gera —gure azala meegia,
 Ez degu ezer lortuko, bañan joango gera.»

XXXV

Azkenez — azkenez — izu-arazle ta ekaitsu gauaren ondoren,
 Egun-senti argi ta baketsua datorren bezela, etorri ziran —
 Nere erritarrak, biotz-gazte, luze ta alaiak,
 Mundu zear jolasketa ta omenaren billa,
 Biribilketa alai atzean London'en ibilliaz,
 Piccadilly ta Leicester Square leenengo aldiz ikusiaz,
 Eres-taldeak: «An zear, an zear
 Mezu-egin, mezu-egin —«kontuz egon»— joaz—»
 Amerika'tar ikurriña kulunkan igaro
 Ta ingelesek burustean, negarrari nik eman.

XXXVI

«Amaitzeko etorriak gaituk, jingoren itza.»
 «Heinitarrak purrukatuko ditugu.»
 «Ez naiz mordollo orretara oitutzen.»
 «Mutuak —ez ulertzen zer degun esaten.»

'Call that stuff coffee? You oughter
Know better. Gee, take it away.'
'Oh, for a drink of ice water!'
'They think nut-sundae's a day.'

'Say, is this chicken feed money?'
'Say, does it rain every day?'
'Say, Lady, isn't it funny
Every one drives the wrong way?'

XXXVII

HOW beautiful upon the mountains,
How beautiful upon the downs,
How beautiful in the village post-office,
On the pavements of towns—
How beautiful in the huge print of newspapers,
Beautiful while telegraph wires hum,
While telephone bells wildly jingle,
The news that peace has come—
That peace has come at last—that all wars cease.
How beautiful upon the mountains are the footsteps
Of the messengers of peace!

XXXVIII

IN the depth of the night betwixt midnight and morning,
In the darkness and silence forerunning the dawn,
The throb of my heart was a drum-beat of warning,
My ears were a-strain and my breath was undrawn.

In the depth of the night, when the old house was sleeping,
I lying alone in a desolate bed,
Heard soft on the staircase a slow footstep creeping—
The ear of the living—the step of the dead.

In the depth of the night betwixt midnight and morning,
A step drawing near on the old oaken floor
On the stair—in the gallery—the ghost that gives warning
Of death, by that heartbreaking sigh at my door.

«Kafea ote da ori? Obeto jakin bear zenuke,
Alde, eraman ezazu!!»

«Ur izoztu zurrut bat nai nuke.»

«Intxaur izozkia obegoa dala uste dute.»

«Aizak, diru au purtzilla ote?»

«Aizak, egunero euria ari ote?»

«Entzun, Lady, ez ote barregarri

Guztiak alderantziz gidatzea?»

XXXVII

Bai eder mendigañetan,
Bai eder ondartzetan,
Bai eder urixko bidal-etxea
Irietako galtzada gañean —
Bai eder izparringietako irar-izki aundiak,
Ederra urrunt-idazkinen ariak burrun egitean,
Zoroki telefonoaren txilinak isildu gabe ari diranean,
Pakearen albistea iritxi da —
Azkenean pakea iritxi dala — guda guztiak bukatu.
Bai ederrak mendigañetan
Pake mezudunen aztarnak!

XXXVIII

Gauaren sakonean, gauerdi ta goiz-aldeartean,
Adirazten dun egun-sentian, ixiltasun eta illunpean,
Nere biotzaren taupada deadarraren oina zan,
Belarriak erne ta arnasa geldierazoa.

Gauaren sakonean, etxe zaarra lo zegoela,
Bakarrik nere oe soilean,
Geldi-geldi zijoan oin-otsa eskillaran oartu nun —
Bizidunen entzumena —ildakoen oin-otsa.

Gauaren sakonean, gauerdi ta goiz-alde tartean,
Arizki oltz zaar gañean, urbiltzen dan oin-otsa —
Eskillaran —berinpean —nere atean,
Izugarrizko antsi orrekin, eriotza aztiatzen dun mamua.

XXXIX

BAD news is not broken,
 By kind tactful word;
 The message is spoken
 Ere the word can be heard.
 The eye and the bearing,
 The breath make it dear,
 And the heart is despairing
 Before the ears hear.
 I do not remember
 The words that they said:
 'Killed—Douai—November—'
 I knew John was dead.
 All done and over—
 That day long ago—
 The white cliffs of Dover—
 Little did I know.

XL

AS I grow older, looking back, I see
 Not those the longest planted in the heart
 Are the most missed. Some unions seem to be
 Too close for even death to tear apart.
 Those who have lived together many years
 And deeply learnt to read each other's mind,
 Vanities, tempers, virtues, hopes and fears—
 One cannot go—nor is one left behind.
 Alas, with John and me this was not so:
 I was defrauded even of the past.
 Our days had been so pitifully few,
 Fight as I would, I found the dead go fast.
 I had lost all—had lost not love alone,
 But the bright knowledge it had been my own.

XLI

O, SAD people, buy not your past too dearly,
 Live not in dreams of the past, for understand,
 If you remember too much, too long, too clearly,
 If you grasp memory with too heavy a hand,

XXXIX

Berri txarrak ez dira irixten
 Itz laztan ta uki-oneko bidez;
 Itzak entzun aurretik
 Mezua etortzen da.
 Begiak, itxurak, arnasak
 Jakin-arazten dute,
 Biotza etsita.
 Belarriak entzun aurretik.
 Ez naiz gogoratzen zer esan zuten:
 «Illa — Douai — Azaroa —»
 Banekien John illa zegoela.
 Dan-dana amaitua —
 Lekutako egun artan —
 Dover'ko itsas-malda zuriak —
 Ezer gutxi nekien.

XL

Zaartzen nijoan bezela, atzera begiratzean,
 Ikusten det, biotzean sustraituenak
 Ez dirala geienak uts egiten digutenak.
 Senar-emazte batzuek eriotzak ere
 Ezin ditu banandu.
 Luzaroan alkarrekin bizi izan diranak
 Batek bestearen gogoa ikasia du,
 Uskeriak, azturak, zintzotasunak, itxaropen ta beldurrak —
 Ezin bakarrik joan —ez bestea atzean utzi.
 Ai, John eta neretzat ez zan orrela:
 Joandakoak ere marro egiten zidan,
 Ain egun gutxi alkarrekin,
 Borroka egin arren — guztia galdua,
 Eriotza ziztakoan etorria,
 Maitasuna ez bakarrik galdua,
 Nerea izan zala, orren jakite alaia ere.

XLI

Oi, zuek, atsekabetuak, joandakoak ez garestiegi erosi,
 Ez igarotakoen ametsetan bizi,
 Geiegi, luzeegi, garbiki gogoratzen badezute,

You will destroy memory in all its glory
 For the sake of the dreams of your head upon your bed
 You will be left with only the worn dead story
 You told yourself of the dead.

XLII

NANNY brought up my son, as his father before him,
 Austere on questions of habits, manners, and food.
 Nobly yielding a mother's right to adore him,
 Thinking that mothers never did sons much good.

A Scot from Lady Jean's own native passes,
 With a head as smooth and round as a silver bowl,
 A crooked nose, and eyes behind her glasses
 Grey and bright and wise—a great soul!

Ready to lay down her life for her charge, and ready
 To administer discipline without consulting me:
 'Is that the way for you to answer me leddy?
 I think you'll get no sweet to-night to your tea.'

Bringing him up better than I could do it,
 Teaching him to be civil and manly and cool
 In the face of danger. And then before I knew it
 The time came for him to go off to school.

Off to school to be free of women's teaching,
 Into a world of men—at seven years old;
 Into a world where a mother's hands vainly reaching
 Will never again caress and comfort and hold.

XLIII

MY father came over now and then
 To look at the boy and talk to me,
 Never staying long,
 For the urge was strong
 To get back to his yawl and the summer sea.
 He came like a nomad passing by,
 Hands in his pockets, hat over one eye,
 Teasing every one great and small
 With a blank straight face and a Yankee drawl

Astunegi eskua ezartzen,
 Zure buruaren amets-bideak dirala ta,
 Bere goragarria ondatuko.
 Senarra zanaren istoria aitu ta galdua besterik ez gorde.

XLII

NANNY'k nere semea azi zun, leen bere aita bezelaxe,
 Oitura, era ta jatorduetan zorrotz.
 Aurra laztantzeko amaren eskubidea zindoki ezagutuaz,
 Amak semeeri ez dietela ezer on egiten buruan erabiliatz.

Lady Jean'en ezkoziar jaioterri mendi-lepo berekoa,
 Zilarra bezin buru txuria,
 Sudur kakoduna, ta betaurre atzean
 Begi argi, jakiñez beteak —bai andre adoretsua!

Eginkizunen alde bere bizia emateko prest,
 Iritzia neri eskatu gabe, zigortzeko gertu.
 «Orrela erantzuten al zaio etxeakoandeari?
 Gaur ez dezu goxorik artuko.»

Arrisku aurrean adikor, gizonki ta neurridun,
 Oiek erakusten zizkion, neronek bezin ongi.
 Uste baño leen Ikastolara joateko garaia,
 Emakumeen irakastetik alde egiteko, ikastolara.

Gizonezkoen mundura — zazpi urteekin,
 Goxatu, poz-eman, atxiki egingo ez zuten
 Amaren eskuetatik urrun.

XLIII

Aita etortzen zan, noizean bein,
 Mutilla ikusi ta nerekin itz egitera,
 Ez luzaroko,
 Bere ontzi ta itsas beroak
 Premiatzen zuten ba.
 Igarotzen dan edonondarra
 Bezela zetorren,
 Eskuak gerrikoan, begi gañean txapela,
 Aundi ta txikieri zirika egiñaz,
 Amerikatar kutsu ta aurpegi zabalakin;
 Apostoluen Jarraipengain

Teasing the Vicar on Apostolic Succession
 And what the Thirty-Nine Articles really meant to convey,
 Teasing Nanny, though he did not
 Make much impression
 On that imperturbable Scot.
 Teasing our local grandee, a noble peer,
 Who firmly believed the Ten Lost Tribes
 Of Israel had settled here—
 A theory my father had at his fingers' ends—
 Only one person was always safe from his jibes—
 My mother-in-law, for they were really friends.

XLIV

OH, to come home to your country
 After long years away,
 To see the tall shining towers
 Rise over the rim of the bay,
 To feel the west wind steadily blowing
 And the sunshine golden and hot,
 To speak to each man as an equal,
 Whether he is or not.

XLV

Was this America—this my home?
 Prohibition and Teapot Dome—
 Speakeasies, night-clubs, illicit stills,
 Dark faces peering behind dark grills,
 Hold-ups, kidnappings, hootch or booze—
 Every one gambling—you just can't lose,
 Was this my country? Even the bay
 At home was altered, strange ships lay
 At anchor, deserted day after day,
 Old yachts in a rusty dim decay—
 Like ladies going the primrose way—
 At anchor, until when the moon was black,
 They sailed, and often never came back.

Even my father's Puritan drawl
 Told me shyly he'd sold his yawl
 For a fabulous price to the constable's son—
 My childhood's playmate, thought to be one

Erretoreari bostak emanaz,
 Ogeitamairu legeak ia zer esan nai zuten.
 Aitak adarra jo arren
 Eskoziar bulartsu zan Nanny'ri ajolarik gabe.
 Gure auzoko aundikiari ziria sartzen,
 Israel'ko Amar Etxadi Galduak
 Emen errikotuak zeudela,
 Sendoki sinisten zuenari —
 Balizketa ori, aitak beatz-muturrean zeukan —
 Bere ziriketetik bat bakarra zegon beti alderatua —
 Nere amagiarreba, benetako adiskideak ziran eta.

XLIV

Oi, urte guzti oiek igaro ta
 Zure etxera itzuli,
 Itsas-bazter gañetik
 Dorre aundi argidunak ikusi,
 Itzaldeko aize-eman irautia somatu,
 Eguzki bero ta urre-bistua ere,
 Zu ainbateko diranak edo ez,
 Guztiekin itz egiñaz.

XLV

Au ote Amerika? —Au nere aberria?
 Eragozpen eta Teapot Dome —
 Txabola, gau-biltoki, bidegabezko lekuak,
 Burni-esi illun atzetik aurpegi ilunak begira,
 Eraso-aldiak, aur lapurketak, jarraipenak, deadarrak
 Guztiek apostuka —iñork ez galdu bear,
 Au ote nere aberria? Etxeko itsas-bazterra ere
 Aldatua, ur-ontzi arrotzak ainguratuak,
 Eguna joan, eguna etorri, utziak,
 Bela ontzi zaarrak, illuntasun ezean,
 Ainguratuak, andre gazte itxuradunak bezela —
 Illargia illuntzen dan arte,
 Itsasoz joan eta sekulan atzera etorri gabe.
 Aitaren kutsu zorrotzak ere

Erabez jakin arazi nindun kondearen semeari
 Dirutza aundiaren ordeztuak bela-ontzia saldu ziola
 Nere aurtzaroko laguna, gaizkille sailekoa,
 Erruma merkatariak, diru asko aldean daukatenak —

Of a criminal gang, rum-runners all,
 Such clever fellows with so much money—
 Even the constable thought it funny,
 Until one morning his son was found,
 Floating dead in Long Island Sound.
 Was this my country? It seemed like heaven
 To get back, dull and secure, to Devon,
 Loyally hiding from Lady Jean
 And my English friends the horrors I'd seen.

XLVI

THAT year she died, my nearest, dearest friend;
 Lady Jean died, heroic to the end.
 The family stood about her grave, but none
 Mourned her as I did. After, one by one,
 They slipped away—Peter and Bill—my son
 Went back to school. I hardly was aware
 Of Percy's lovely widow, sitting there
 In the old room, in Lady Jean's own chair.

An English beauty glacially fair
 Was Percy's widow Rosamund, her hair
 Was silver gilt, and smooth as silk, and fine,
 Her eyes, sea-green, slanted away from mine,
 From any one's, as if to meet the gaze
 Of others was too intimate a phase
 For one as cool and beautiful as she.

We were not friends or foes. She seemed to be
 Always a little irked—fretted to find
 That other women lived among mankind.
 Now for the first time after years of meeting,
 Never exchanging more than formal greeting.
 She spoke to me—that sharp determined way
 People will speak when they have things to say.

XLVII

ROSAMUND: Susan, go home with your offspring
 Fly. Live in America.

SUSAN: Rosamund, why ?

ROSAMUND: Why, my dear girl, haven't you seen
 What English country life can mean

Nabarmen, zardai-pazka oietakoa omen zan,
 Kondean ustez, poz-arazleak omen ziran,
 Long Island'ko aingurategi lekuan, ur gañean,
 Bere semearen gorputza aurkitu arte.
 Au ote nere aberria? Zerua zirudin
 Devon aspergarri ta ziurrera berriz etortzea,
 Lady Jean eta adiskideengandik
 Ikusitako izugabekeriak ixilik gordez.

XLVI

Urte-barru orretan, nere alboko, adiskide kutuna il egin zan;
 Bukaeraño urena, Lady Jean il egin zan.
 Bere illobi aurrean etxeoak makurtu,
 Bañan iñork ez zun, nik bezela, negarrari eman.
 Banan bana guztiak alde egin zuten,
 — Peter eta Bill'ek —nere semea ikastolara.
 Ia ez konturaturik, Percy'ren alargun zoragarria,
 Gela zaarrea, Lady Jean'en lekuan eserita zegoela.

Rosamund, Percy'ren alarguna, ingelesen edertasun
 Otz orrekin, ille zillar-zuri, seda bezin biguña,
 Begiak itsas-berde, nereetatik beti urrun,
 Beste edozeingandik ere bai, bere barrena
 Azalean jartzea iduritzen ote zitzaion
 Orrelako edertasun otz orreri.

Ez giñan adiskide, ez etsai. Beti muturtu xamarra
 Zirudin, mindua, beste emakumeak ere
 Munduan bizi ziralako—
 Urte-buru luze ondoren alkar ikusiaz,
 Agur murrizak egiñaz,
 Leenengo aldiz itz egin zidan —
 Zerbait esan bear danean bezela, zorrotz alakoan.

XLVII

ROSAMUND: Susan, zoaz zure etxera semearekin,
 Iges egin. Ameriketari bizi.

SUSAN: Zergaitik?

ROSAMUND: Neska maitia, ez al dezu ikusten
 Ingeles zabaldegian bizitzea zer dan
 Landa jasotzeko orrelako errenta txikiegiekin.

With too small an income to keep the place
 Going? Already I think I trace
 A change in you, you no longer care
 So much how you look or what you wear.
 That coat and skirt you have on, you know
 You wouldn't have worn them ten years ago.
 Those thick warm stockings they make me sad,
 Your ankles were ankles to drive men mad.
 Look at your hair—you need a wave.
 Get out—go home—be hard—be brave,
 Or else, believe me, you'll be a slave.
 There's something in you—dutiful—meek—
 You'll be saving your pin-money every week
 To mend the roof. Well, let it leak.
 Why should you care?

SUSAN: But I do care.

John loved this place and my boy's the heir.

ROSAMUND: The heir to what? To a tiresome life
 Drinking tea with the Vicar's wife,
 Opening bazaars, and taking the chair
 At meetings for causes that you don't care
 Sixpence about and never will;
 Breaking your heart over every bill
 I've been in the States, where everyone,
 Even the poor, have a little fun.
 Don't condemn your son to be
 A penniless country squire. He
 Would be happier driving a tram over there
 Than mouldering his life away as heir.

SUSAN: Rosamund dear, this may all be true.
 I'm an American through and through.
 I don't see things as the English do,
 But it's clearly my duty, it seems to me,
 To bring up John's son, like him, to be
 A country squire—poor, alas,
 But true to that English upper class
 That does not change and does not pass.

ROSAMUND: Nonsense; it's come to an absolute stop.
 Twenty years since we sat on top
 Of the world, amusing ourselves and sneering
 At other manners and customs, jeering

Ba al zoaz? Zure itxuran zerbait aldaketa
 Nabaitzen detela uste det. Zure irudia ez zaizu
 Ainbeste arduratzen, edo jazten dituzunak.
 Beroki ta gona oiek orain amar urte
 Ez zituzun soiñean ibiliko.
 Galtzerdi lodi ta bero oiek goibel arazten naute,
 Zure txonkatillak, gizonak ero-arazteko
 Txonkatillak ziran — begira zure ileari,
 Apaintze bearrean dago — Zoaz —
 Joan etxera — gogortu — ausarta izan,
 Diozutena aintzat artu — bestelan mirabe
 Izango zera. Zure barruan zerbait badago,
 Menpeko — apala. Teilatua konpontzeko
 Astero dirua zuurtuko dezu. Ea, tankatan utzi,
 Zuri zer ajola?

SUSAN: Bañan, ajola zait,
 John'ek leku au maite zun ta nere semea nausigaia da.

ROSAMUND: Zertazko nausigaia? Bizimodu aspergarria,
 Erretorearen emaztearekin te artuaz,
 Azokak zabalduaz, ajola gutxiko gaietzaz
 Onura artuaz. Ordain-agiri bakoitzaz kezkaraziaz,
 Laterri Alkartuetan ia guztiak, beartsuak ere,
 Atsegin artzen dute.
 Landa jaun ondatua izatera
 Ez zure semea beartu. An zoriontsuagoa,
 Tranbi-zain, emen nausigai baño.

SUSAN: Rosamund maitia, ori guztia egia izan diteke,
 Amerikatarra naiz soin da muin,
 Ingelesen gisa ez ditut gauzak ikusten,
 Bañan John'en semea bera bezela,
 Landa jaun, beartsua bear bada
 Azitzea beartua nago —
 Igarotzen ez dan, aldatu ere ez
 Goien Ingeles gisara leial.

ROSAMUND: Xoxo alena, irteera gabeko bidean gaude.
 Ogei urte auetan mundu gañean
 Eserita egon gera, beste errion oitura, jardun bidetzaz
 Irri egiten, esne-mamitan bizi giñan.

At other nations, living in clover—
 Not any more. That's done and over.
 No one nowadays cares a button
 For the upper classes—they're dead as mutton.
 Go home.

SUSAN: I notice that you don't go.

ROSAMUND: My dear, that shows how little you know.
 I'm escaping the fate of my peers,
 Marrying one of the profiteers,
 Who hasn't an 'aitch' where an 'aitch' should be,
 But millions and millions to spend on me.
 Not much fun—but there wasn't any
 Other way out. I haven't a penny.
 But with you it's different. You can go away,
 And oh, what a fool you'd be to stay.

XLVIII

RABBITS in the park,
 Scuttling as we pass,
 Little white tails
 Against the green grass.
 'Next time, Mother,
 I must really bring a gun,
 I know you don't like shooting,
 But ...!'
 John's own son,
 That blond bowed face,
 Those clear steady eyes,
 Hard to be certain
 That the dead don't rise.
 Jogging on his pony
 Through the autumn day,
 'Bad year for fruit, Mother,
 But good salt hay,'
 Bowling for the village
 As his father had before;
 Coming home at evening
 To read the cricket score,
 Back to the old house
 Where all his race belong,
 Tired and contented—
 Rosamund was wrong.

Ori guztia bukatu da. Gaur egun
 Aundikien gora beerak
 Ez dute tirrit balio —
 Aaria bezin illak daude. Zoaz etxera.

SUSAN: Zu ez zoazela oartzen det.

ROSAMUND: Maitia, ez zera konturatzen
 Nere pareetatik nola iges egiten deten,
 Oietako gozatzaille batekin ezkontzera nijoa.
 «Aitch» euki bear lekuan «Aitchl»'ik ez daukana.
 Orren orde, milloi ta milloiak
 Neregan banatzeko.
 Ez da oso jostagarria — beste biderik ez
 Aurrera egiteko — zipitzik gabe nago eta.
 Zurea, bestelakoa da. Urrutira joan zintezke,
 Oi, nolako tuntuna emen gelditzen bazera.

XLVIII

Untxiak zugaztian,
 Gure igarotzean lasterka,
 Buztantxo zuriak
 Belar berdean.
 «Urrengoan, Ama,
 Eiz-izkillua ekarri bear det,
 Badakit ez dezula on artzen
 Bañan..!»
 John'en seme berezia,
 Bere aurpegi zuri-gorria,
 Begi argi, zindoak.
 Ezin buruan sartu
 Illak ez dirala piztutzen.
 Zalditxo gañean draka-draka
 Udazken egun artan.
 «Igali urte txarra, Ama,
 Belarrarentzat berriz, ona.»
 Aitak egin oi zun bezela
 Erritxoan bola-jokuan;
 Illunabarrean,
 Bere odolekoen etxe zaarrera
 Cricket gertaeraren
 Berri artzera,
 Pozik eta nekatua —
 Rosamund oker zegon.

XLIX

IF some immortal strangers walked our land
 And heard of death, how could they understand
 That we—doomed creatures—draw our meted breath
 Light-heartedly all unconcerned with death.
 So in these years between the wars did men
 From happier continents look on us when
 They brought us sympathy, and saw us stand
 Like the proverbial ostrich—head in sand—

While youth passed resolutions not to fight,
 And statesmen muttered everything was right—
 Germany, a kindly, much ill-treated nation—
 Russia was working out her own salvation
 Within her borders. As for Spain, ah, Spain
 Would buy from England when peace came again!
 I listened and believed—believed through sheer
 Terror. I could not look whither my fear
 Pointed—that agony that I had known.
 I dosed my eyes, and was not alone.

Later than many, earlier than some,
 I knew the die was cast—that war must come;
 That war must come. Night after night I lay
 Steeling a broken heart to face the day
 when he, my son—would tread the very same
 Path that his father trod. When the day came
 I was not steeled—not ready. Foolish, wild
 Words issued from my lips—‘My child, my child,
 Why should you die for England too?’ He smiled:
 ‘Is she not worth it, if I must?’ he said.
 John would have answered yes—but John was dead.

L

IS she worth dying for? My love, my one
 And only love had died, and now his son
 Asks me, his alien mother, to assay
 The worth of England to mankind today—
 This other Eden, demi-paradise,
 This fortress built by Nature for herself
 Against infection and the hand of war;

XLIX

Kanpotar illezkorren batzuek gure aberrira etorriko balira
 Eriotzaren berri jakin eta nola ulertu
 Doakabe umeak geranok — biotz alai arnasa
 Neurtzen degula — eriotzaz arduratu gabe.
 Orrela, guda tarteko urte oietan
 Lurralde zoriontsuagoak begira egitean
 Beren begietan sartu, ikusiaz
 Ostrukaren antzera — burua ondar barruan daukagula.

Gaztediak burrukarik ez egitea erabakiaz,
 Guztia ongi zijoala aopetik agintariak esanaz,
 Alemania, onbera, gaizki artutako erria,
 Muga barruetan, Errusia, ekinaldian
 Bere gaizkapena lortzeko.
 Espainia berriz, ai Espainiak
 Pake garaian Ingeleterra'tik erosiko!
 Nik berriz, entzun eta sinestu —
 Biotzean izu-ikara, bañan sinestu.
 Begiak itxi, beldurra ez zedin agertu.
 Ezaguna zitzaidan neke larria
 Izkutatu — ez negoen bakarrik.

Askoek baño geroago, batzuen aurretik
 Zotza egiña zegoela — guda zetorrela;
 Gauak joan, gauak etorri, biotza leer zorian
 Semeak noiz esango, ba'zijoala,
 Aitaren bide berdiña artu bearrean zegoela.
 Eguna urbiltzean ez negoen babestua
 Ez ta ere gerturik — Itz ero basatiak
 Aotik irten — «Ene seme, semetxoa,
 Zuk ere Ingeleterraren alde odola eman bear?»
 Irripar egiñaz: «Ez al du ori merezi,
 Nere eginbidea ba da?» Esan zun.
 John'ek baiezkoa esango, bañan, John ilik zegoen.

L

Merezi al du bere alde iltzeak? Nere seme maite, kutun,
 Nere maitea il egin zan, orain bere semeak
 Neri, bere kanpotar amari, neurtzeko esan
 Gaurko gizadiari Ingeleterraren merezia,
 Beste Eden ori, paradisu-erdia,
 Kutsapen eta guda-antzearen aurka
 Izadiak berak eraikitako gaztelua;

This happy breed of men, this little world.
 This precious stone set in the silver sea—
 Ah, no, not that—not Shakespeare—I must be
 A sterner critic. I must weigh the ill
 Against the good, must strike the balance, till
 I know the answer—true for me alone—
 What is she worth—this country—not my own?

I thought of my father's deep traditional wrath
 Against England—the redcoat bully—the ancient foe—
 That second reaping of hate, that aftermath
 Of a ruler's folly and ignorance long ago—
 Long, long ago—yet who can honestly say
 England is utterly changed—not I—not I.
 Arrogance, ignorance, folly are here today.
 And for these my son must die?
 I thought of these years, these last dark terrible years
 When the leaders of England bade the English believe
 Lies as the price of peace, lies and fears,
 Lies that corrupt, and fears that sap and deceive.
 I thought of the bars dividing man from man,
 Invisible bars that the humble may not pass,
 And how no pride is uglier, crueller than
 The pride unchecked of class.
 Oh, those invisible bars of manners and speech,
 Ways that the proud man will not teach
 The humble lest they too reach
 Those splendid heights where a little band
 Have always stood and will always stand
 Ruling the fate of this small green land,
 Rulers of England—for them must I
 Send out my only son to die?

LI

AND then, and then,
 I thought of Elizabeth stepping down
 Over the stones of Plymouth town
 To welcome her sailors, common men,
 She herself, as she used to say,
 Being 'mere English' as much as they—
 Seafaring men who sailed away
 From rocky inlet and wooded bay,

Jendeki zorionsua, mundu txikian,
 Zillar-antzeko itsasoan arri bizia —
 Ai ez, ori ez — Shakespeare ez — aztarle zorrotzagoa
 Izan bear det. Kaltegarria egokiaretan
 Aztatu, zalantzarazi, erantzuna jakin arte —
 Neretzat bakarrik egiazkoa —
 Nerea ez dan aberri onek zer merezimendu dauka?

Aspaldiko sakon aserreaz
 Ingeleterraren aurkakoa,
 Txamar-gorridun burrukaria, etsai okitua zan,
 Burura ekarri nun nere aita —
 Bigarren gaizkinai uzta au, agintari orren
 Aspaldiko erokeri ta ez-jakiteak dirala ta,
 Aspaldikoak, okituak — Nork zuzenki esan
 Ingeleterra osoro aldatu dala — Nik ez — Nik ez.
 Andikeria, ez-jakitea, erokeria, gaur egun or daude.
 Oiengatik semeak il bear al du?
 Azkeneko urte illun, lazarri oiek gogora ekarri nitun,
 Ingeleseri beren Agintariak gezurrak sinest-arazi,
 Pake balioaren gezurra, gezurrak eta beldurrak,
 Gaizkitzen duten gezurrak, zirpildu ta ametsak galdu arazten
 Ditutzen beldurrak.
 Gizonak alkar aldentzen dituzten esiak,
 Apalak igaro ezin dituzten esi ager-eziñak,
 Arrokeri itsusiago, biotz gogorragorik ez dago
 Kideen arrokeri ezigabekeria baño.
 Oitura, izkuntza oien esi ezkutuak
 Apalari aundikiak erakutsiko ez dizkionak.
 Goitar bikainetatik talde txiki batek
 Betidanik egon dan eta egongo dana
 Laterritxo berde onen etorkizuna jaurtzen,
 Xumeak goi leku oiek atzeman ez ditzaten.
 Ingeleterra'ko agintariak — beren alde
 Nere seme bakarra eriotzara bidali bear al det?

LI

Orduan, orduan,
 Elisabeth'tzaz gogoratu nintzan,
 Plymouth'ko irian eskillara beera
 Guda-gizon xoillari ongi etorria ematera,

Free men, undisciplined, uncontrol led,
 Some of them pirates and all of them bold,
 Feeling their fate was England's fate,
 Coming to save it a little late,
 Much too late for the easy way,
 Much too late, and yet never quite
 Too late to win in that last worst fight.

And I thought of Hampden and men like him,
 St. John and Eliot, Cromwell and Pym,
 Standing firm through the dreadful years,
 When the chasm was opening, widening,
 Between the Commons and the King;
 I thought of the Commons in tears—in tears,
 When Black Rod knocked at Parliament's door,
 And they saw Rebellion straight before—
 Weeping, and yet as hard as stone,
 Knowing what the English have always known
 Since then—and perhaps have known alone—
 Something that none can teach or tell—
 The moment when God's voice says: 'Rebel.'

Not to rise up in sudden gust
 Of passion—not, though the cause be just;
 Not to submit so long that hate,
 Lava torrents break out and spill
 Over the land in a fiery spate;
 Not to submit for ever, until
 The will of the country is one man's will,
 And every soul in the whole land shrinks
 From thinking—except as his neighbour thinks.
 Men who have governed England know
 That dreadful line that they may not pass
 And live. Elizabeth long ago
 Honoured and loved, and bold as brass,
 Daring and subtle, arrogant, clever,
 English, too, to her stiff backbone,
 Somewhat a bully, like her own
 Father—yet even Elizabeth never
 Dared to oppose the sullen might
 Of the English, standing upon a right.

Aiek bezela — esan oi zun — bera ere
 «Ingeles utsa». Ibai-ondo arrutsu ta ur-golko oiantsuetatik
 Urrutira zijoazen itsas-gizonak,
 Biurriak, mendegabekoak, ezi-gaitzak,
 Batzuek itsas-lapurrak, guztiak ausartiak.
 Beren zoria Ingeleterrakoena zala nabaituaz,
 Berandu xamar gaizkatzera etorriaz,
 Egite errezerako beranduegi,
 Beranduegi, bañan ez geiegi
 Azken eta okerren eraso irabazteko.

Hampden'en pentsatu nuen, bera bezelakoak
 St. John eta Eliot, Cromwell eta Pym,
 Urte beldurgarri aietan zutik tinko,
 Amildegia irekitzen, zabaltzen,
 Erritar eta Erregearen artean;
 Erritarrak negarrez — negarrez,
 Rod Beltzak Biltzar-etxeko atean dei egiñaz
 Ta aurrean biurkeria ikusi —
 Negarrez, bañan arria bezin gogor,
 Geroztik — onenean betidanik, berak bakarrik
 Zekitenak, beste iñork ezin irakatsi,
 Jainkoaren aotsak esatean: «Jaiki zaitez.»

Bat bateko ero-aldian ez jaiki bear —
 Ez, arazoa bidezko izan arren,
 Ez eta ere gorrotoa, urgori turrusta bezela
 Erri gañean ixuri arte.
 Iñor baztertu gabe auzokoen pentsakeretatik.
 Ingeleterrán agindu dutenak ba'dakite
 Igaro ezin dan marra izugarria
 Nolakoa dan, alaz ere bizi.
 Aspaldian Elisabeth'ek bazekian ori,
 Bere aita bezin zintzoa, maitea, ausartia,
 Biozdun eta maltzurra, argia,
 Ezur-mamiraño ere ingelesa,
 Aitaren antzera burrukaria.
 Beren eskubideen alde egiten zuten
 Ingelesen indarrari, Elisabeth'ek
 Ez zien beñere jazarketatu.

LII

AND were they not English, our forefathers, never more
English than when they shook the dust of her sod
From their feet for ever, angrily seeking a shore
Where in his own way a man might worship his God.
Never more English than when they dared to be
Rebels against her—that stern intractable sense
Of that which no man can stomach and still be free,
Writing: ‘When in the course of human events...’
Writing it out so all the world could see
Whence come the powers of all just governments.
The tree of Liberty grew and changed and spread,
But the seed was English.

I am American bred,
I have seen much to hate here—much to forgive,
But in a world where England is finished and dead,
I do not wish to live.

LII

Ez al ziran ingelesak, gure arbasoak, ingelesagoak ere
 Beren oinetatik autsa astinduaz, aserrean,
 Bere legez Jainkoa gurtzeko,
 Betirako, bazter baten billa joanak.
 Ezin ingelesagoak bere aurka egitera
 Ausartu ziranean baño —biotz-gogor,
 Erabilgaitz biozkada ori
 Iñork eraman ezin duna ta aske izan,
 Idatziaz: «Gizagertakizunen bidean...»
 Orrela, mundu guztiak ikusi zezan
 Agintari zuzen guztien indarrak nondik datozten.
 Askatasunaren zuaiza aunditu, aldatu,
 Ta zabaldu. Bañan azia, ingelesa.
Amerikatarra naiz,
 Gorrotagarri asko ikusi det emen — barkagarri asko,
 Bañan Ingeleterra bukatu ta ila dagon munduan,
 Mundu orretan, ez det nai bizi.

